



**Aitzol, Asier eta Eneko**

# AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
2. Balorezko proposamena.....	3
3. Merkatuaren segmentazioa.....	4
4. Funtsezko elkarteak.....	5
5. Irabazi iturriak.....	6
6. Kanalak.....	7
7. Bezeroekiko harremanak.....	9
8. Funtsezko baliabideak.....	10
9. Funtsezko jarduerak.....	11-12
10. Kostuen egitura.....	13-14

# SARRERA

Gure negozio ideia Asierreri burutu zitzaien “Automozio Goi Mailako” ikasketak burutu eta gero. Automozio esparruan “**ibilgailuen moldaketak**” dibertsitate funtzionala duten pertsonen beraien beharrezkoen egokituta egitea pentsatu genuen. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen beraien bizitza kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Negozioa **kooperatiba** txiki bat izango da, eta hiru bazkide izango gara; Eneko, Aitzol eta Asier. Hiru bazkideok erabakitzen dugu enpresaren nondik norakoak, bakoitzak bere ikasketak eta lan esperientzia ezarriz.

Gure enpresa “**agenda 2030**”ean zehaztuta dauden helburuekin konprometitu behar dela argi daukagu, garapen jasangarri bat bultzatuz. Bertan aipatzen diren 17 helburuetatik gure negozio ideia ondorengoekin bat dator:

- **Energia jasangarria** erabiltzea; kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak sustatuz.
- **Hazkunde ekonomiko iraunkorra**, inklusiboa eta jasangarria, enplegu osoa eta produktiboa, eta guztientzako lan duina sustatzea.
- **Generoen arteko berdintasuna** lortzea.
- **Bizitza osasuntsua** bermatzea eta guztientzako ongizatea sustatzea adin guztietan.

Hemen adierazten ditugu gure enpresaren misioa eta ikusmira.

- **Misioa:** Moldauto Espainia mailan dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat erreferente bihurtu nahi da; **edozein motatako ibilgailuetan** beraien mugikortasun-beharrei egokitutako kotxe, karabana, taxi, furgoneta, autobusei, ... moldaketak sortuz, beraien eguneroko bizitza errazteko eta hobetzeko helburuarekin, ekoizpen prozesu jasangarrietan oinarrituz.

- **Ikusmira:** Espainian **erreferentziazko enpresa** izatea eta gure merkatua nazioarteko beste herrialde batzuetara zabaltzea, irisgarritasun unibertsalean, gidaritzan eta garraioan bere autoa modu seguru eta erosoan gidatu nahi duten guztiei lagunduz ibilgailu mota guztietan egingo ditugun moldaketekin, gizartean pertsona guztien inklusioa bultzatuz eta bezero bakoitzari irtenbide guztiz pertsonalizatua eskainiz prozesu jasangarrien bidez.

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure balioek, gure nortasuna adierazten dute eta gure jarduteko printzipioak definitzen dituzte:

- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen **autonomia pertsonala maximizatzea**, irtenbide teknikoen bidez, gure zerbitzua lurralde osoan uniformeki banatuta dagoen targetera ahalik eta gehien hurbilduz.
- “**IBILGAILU MOTA GUZTIETAN**” moldaketak egiten ditugu; Bai, kotxeetan, furgonetetan, autobusetan, autokarabanetan etab.
- Konpainia arduratsua, eraginkorra eta lehiakorra izatea, eskuragarritasun aldetik bikaintasuna lortzea, pertsonen **bizi-kalitatea** eta autonomia **bermatzeko**. Aliantza estrategikoak erabiliz, lan-sare eta balio komun iraunkor bat sortzeko.
- Enpresak bere behar guztietarako **energia berriztagarriak** erabiltzeko konpromisoa hartzen du.
- **Berrikuntza eta pertsonalizazioa**, bezeroaren beharren arabera, ibilgailuaren egokitzapena lortuko dugu, azken aurrerapenak erabiliz. Hau da, bezero batek esku bakarra izanda, arazo horri konponbide egokia egingo zaio, eta eskatzen dituen konfigurazioekin.
- Kalitaterik onena preziorik onenean, gidatzeko aginte onenak eskaintzen ditugu. Durangaldeko enpresekin lan egingo dugu, **bertoko ekonomia bultzarazteko**.
- **Etiket gertu**, sektoreko tailer onenetako bat da, ibilgailua etiketik gertu egokitzea eta herrialde osotik lasai bidaiatzea aukera bermatzen duena.
- Emandako zerbitzuen % 80a baino gehiago, inguruko **material birziklatuen bidez osatuta** daudela bermatzen dugu.
- Gure **irabazien % 3a** “**Bidaideak Elbarrien Euskal Elkarte Sozial**” elkarteari bideratuko ditugu.
- Dohako **informazio osoa eskaintzen** dugu gure web orriaren bidez. Bertan aurrekontuak, zalantzak, adaptazio motak, konfigurazio-birtuala...emateko aukera dago.